

21. zenbakia
2016ko abendua

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria



Lazarraga sariak 2016

*oraineko haurak
ceñetan dirut ecañu
eusquet erratu / orno la eber
exreque Gadea pobladu.*

06 Igone Martinez de Lunari elkarrizketa. **08** Lansarean.eus atari berria.
10 Autodiagnostikoa sei pausotan. **12** Zarautz eta Gernikako hitzarmenak.
13 Gasteizko mintzo-txiodromoa. **14** Urteko laburpena.



Irudikatu dezagun etorkizuna

Pentsatu, une batez, zer egin duzuen gaur ohetik jaiki zaretenetik... Pentsatu zertan aritu zareten etxean, familia giroan, seme-alabekin, eskola edo ikastolarekiko harremanetan, unibertsitatean, lagun artean, eguneroko erosketa eta zereginetan... Pentsatu, labur bada ere, zer egin duzuen lanean ere, administrazioan, enpresa handi zein ertainetan, edozein sektoretan, merkataritzan eta ostalaritzan, zerbitzuetan... Lankideekin, hornitzaileekin, bezeroekin... Pentsa orain, momentu batez, zein hizkuntza baliatu duzuen zerrendatu ditudan espazio horietan. Euskaraz aritu zarete?

Egin dezagun denboran atzera... Seguru nago erabat ahaztuta izango duzuela duela 20 urte, gaurkoa bezalako egun batean, zertan aritu zineten. Baina bilakaera egon dela esatera ausartuko nintzateke, alor guztietako inkestak, ikerketak eta datuak aintzat hartuta. Urte hauetan, erakunde eta enpresa asko ere euskararako jauzia egiten ari dira, eta hastapenetan badira ere, euskara gero eta aho gehiago, gero eta espazio handiagoa betetzen ari da.

Orain guztioi dagokigu horri egoki erantzutea. Begiratu dezagun, bada, aurrera. Nola irudikatzen duzue gure lurraldearen etorkizuna? Nola imajinatzen duzue gure seme-alabentzako Euskal Herria?

Nik argi daukat etorkizuna euskaraz ere pentsatu eta eraiki behar dela. Lurraldearen eta pertsonen ongizatea hizkuntzekin ere lotu behar da, euskararekin lotu behar da. Euskaraz bizitzea, euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berritzea, saltzea eta erostea, egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posiblea bada, guztion ongizatea handiagoa izango baita... Horra hor gure erronka.

Has gaitezen, bada, etorkizuna irudikatzen. Has gaitezen marko horretara iristeko erronkak, ibilbidea eta epeak ezartzen. Euskaraz bizi eta euskaraz lan egin nahi

duzen pertsonak helburu.

Egin dezagun lan datozen urteotan gure lurraldearen alor sozioekonomikoan ere baldintza sozial, politiko, juridiko eta ekonomiko egokiagoak izateko. Aritu gaitezen elkarlanean, elkarri aitortuz esparru honetan bakoitzak duen garrantzia, elkar babesten. Partekatu dezagun ikuspegia. Euskararen sustapena prozesu kolektiboa da... prozesu honek konpartitua izan behar du, eta, kasu horretan, eremu sozioekonomikoko eragile guztiek bere ekarpena egin behar dute.

Oinarria ezartzen hasi gara LANABES bezalako proiektuen bidez. Zabaldu ditzagun sareak eragile gehiagorengana. Egin dezagun hitzarmen bat enpresa, administrazio eta hezkuntza munduko eragileen artean lan praktikak euskaraz bideratzeko. Lan egin dezagun enpresa gehiagorekin, metodologia erraz eta bideragarrien bitartez, ereduak eta erraztasunak eskainiz, horietan ere euskararen presentzia handiagoa izan dadin. Euskara beharrezko egitea. Horra hor beste erronka bat aurrera begira. Gaur egun euskarak alor sozioekonomikoan duen balioa nahiko mugatua da, baina posible da euskararen balioa handitzea. Baliatu ditzagun ereduak Euskal Herriko beste enpresa batzuei adierazteko zer / nola egin daitekeen euskaraz lan egiteko eta bezeroak euskaraz hartzeko... Biderik eraginkorrena praktika bera da. Praktikarekin eta eredu garri izatearekin zerikusia duen beste erronka bat, oso epe motzean bete litekeena: Administrazioaren zerbitzu-kontratazio eta esleipen mota guztietan hizkuntza irizpideak ezartzea eta aplikatzea, euskarari bere balioa aitortuz sail guztietan...

20 urte barru esan ahal izango dugu gure lurraldearen eta gure seme-alaben ongizateari ekarpena egin diogun.

Lazarraga Sariak 03

Arabako bost entitate aitortu ditu euskararen presentzia txertatu eta hedatzeagatik

Irune Martinez de Antoñana

- Etxeko Baratzak 04

"Euskaraz egiteko ohitura berreskuratu behar dugu, baita Araban ere"

Iraia Aspuru

- Adigrafik 05

"Euskara balio erantsi gisa"

Igone Martinez de Luna

- Arabako Foru Aldundia 06

"Ni banax Arabakoa"

Lansarean.eus 08

Lan ataria berrituta

Autodiagnostikoa 10

Zure erakundearen hizkuntza-egoeraren diagnostikoa sei pausotan

Zarautz eta Gemika-Lumo 12

Euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko konpromisoa

Mintzo-Txiodromoa 13

#GasteizenBaiEuskarari

Urte berriari, bai euskarari 14

Euskaraz lan egin eta bizi nahi dugulako

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus / Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148 / 1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026 Rogelia de Alvaro Elkarleen Etxea A.1.1. Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196 / Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez - Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez - Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran - Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea - Lege gordailua: SS-497-2010



@baieuskarari



baieuskarari ziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Ezlaigo poligonoa, 21^a Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Lazarraga Sariak Arabako bost entitate aitortu ditu euskararen presentzia txertatu eta hedatzeagatik

Adigrafik, Txema Pascual, Etxeko Baratz, Lautada Bizirik eta Ciudad Jardinek egunerokoan euskara normaltasunez erabiltzeko egiten duten lana azpimarratu nahi izan dute Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak



Lazarraga Sariak.
Laburpen bideoa

Lazarraga Sariak laugarrenez nabarmendu zituzten azaroaren 24an Arabako esparru sozioekonomikoan euskara txertatzeko eta hedatzeko lanean ari diren entitateak. Euskara sustatzeagatik egindako ahalegina aitortzea eta goraipatzea xede nagusia izanik, Adigrafik, Txema Pascual (Artepan), Etxeko Baratz, Lautada Bizirik merkatarien elkarte eta Ciudad Jardin Lanbide Heziketako ikastetxea izan dira sarituak, urtean zehar, bakoitzak bere alorrean, euskara sustatzeko aurrera eramandako ekimenengatik. Lazarraga aitzindaria izan zen euskaraz idatzi zuelako; haren izena hartu duten Lazarraga Sariaketak eta saritutako enpresak eta pertsonak ere euskararen normalizaziorako bidea urratzen aitzindariak dira.

Gasteizko Amerika Aretoan ospatu zen sari ekitaldian Arabako Lurralde Historikoko enpresa eta elkarte uga-

rien ordezkariak izan ziren, antolatzaile diren Arabako Foru Aldundiaz eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteaz gain. Aldundiaren aldetik, diputatu nagusiordeak, Pilar García de Salazarrek hartu zuen hitza azpimarratzeko "ezinbestekoa dela gizarte oro har, eta, bereziki, esparru sozioekonomikoko eragileak informatzea, egunez egun daramaten lan isila ozen aldarrikatzeko eta hizkuntza-normalizazioaren prozesuan muina eta partaide direla konturatzeko". Bera-ekin Rober Gutiérrez izan zen, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendaria, eta nabarmendu zuen Arabako etorkizuna euskaraz pentsatu eta eraiki behar dela. Gainera, aurrera begirako erronka aurkeztu zuen: "Arabako euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berri- tzea, saltzea eta erostea, egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posiblea bada, arabarron ongizatea han-

diagoa izango da".

Aurtengo laugarren edizioa "**Lanabes, Araban Euskara Lanean**" egitasmoaren barruan kokatu da. Lanabes proiektuko talde eragilean, Arabako Foru Aldundia, SEA Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Arabako Merkataritza Federazioa, Laneki, Electra Vitoria eta Oreka It enpresak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte ari dira elkarlanean Araban euskararen presentzia sustatzeko eta handitzeko helburuarekin.

Lazarraga Sarien ekitaldi honetan nabarmendu nahi izan ziren Araban euskararen normalizaziorantz emandako aurrerapausoak, esparru guztietan, eta, batez ere, arlo sozio-ekonomikoan. Etorkizunari begira, bide beretik jo behar dela adierazi zuten, elkarlanean, indarrak batuz eta euskaraz bizi eta lan egitea erronka bezala harturik.

Irune Martinez de Antoñana Etxeko Baratza

“Euskaraz egiteko ohitura berreskuratu behar dugu, baita Araban ere”

Lazarraga Sariak mendialderantz jo zuten familia-enpresa berezi bat aitortzeko, Etxeko Baratza, hain zuzen ere. Nekazaritza ekologikoan dihardu Kanpezuko Orbison bizi den laukoteak eta euskarari atxikimendu handia erakutsi izan dio beti. Berriki Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du Etxeko Baratzak, “Zerbitzua Euskaraz” maila, bezeroei euskarazko zerbitzua eskaintzen diela nabarmentzeko eta euskaraz lan egiteko hartu diren neurrien adierazle gisa. Irune Martinez de Antoñanak jaso zuen saria, 24 urtekoa eta formazioz irakaslea. Nekazaritza eta euskara maite ditu Irunek eta mendialdera eraman gaitu Etxeko Baratza ezagutzera eta euskarak haien eguneroko bizimoduan eta lanean duen balioa ulertarazteko.

Lazarraga Saria jaso berri, nola sentitzen zarete?

Sorpresa handia izan da, egia esan, ez genuen espero. Etxeko Baratzak euskarazko kartel bat egiteagatik izandako arazotxo baten harira murgildu ginen Bai Euskarari komunitatean; ondoren, Lazarraga Sarietan parte hartzeko izendatu gintuzten eta gaur irabazleak gara. Hasieratik, gure erronka nagusia izan da nekazaritzan zein lehenengo sektoreko alor guztietan euskaraz bizi ahal izatea; mundu honetan bizi garen guztiok (ekoizleak, saltzaileak, etab.) beharrezkoa dugu egunerokotasunean euskaraz egitea. Laburbilduz, guk aldarrikatzen duguna da era natural batean euskaraz lan egin eta bizi ahal izatea.



Bezeroak eskertzen du euskararen erabilera?

Zalantzarik gabe. Gasteizen euskaldun zahar asko dago, aspaldian lan egitera etorri ziren pertsonak. Horiekin batera, azken urteotan euskaldundu direnak. Denek eskertzen dute gazteekin euskaraz aritu ahal izatea. Egia da momentu batean euskararen presentzia jaitsi zela Araban, baina esango nuke berriz ere sustraietara itzultzen ari garela. Argi daukat gazteok euskaraz egiten badugu, etorkizuna euskaraz izango dugula; azken finean, nire belaunaldiak euskaraz egiten badu zahartzaroan ere euskaraz egiten jarraituko du.

Etxeko Baratza. Familia proiektu txikia, balio handikoa. Nola aurkeztuko zenuke?

Nekazaritza guztiz integraturik dago nire familian; aitzak betidanik lan egin izan du lehenengo sektorean eta 2008an nekazaritza ekologikoaren munduan sartu

ginen, mendialdean sortu zen talde ekologiko batean. Bistakoa da hori dela etorkizuna, izan ere, ohiko nekazaritzaren merkatua sekulako krisian sarturik dago, prezio borrokaren eraginez. Etxeko Baratzaren filosofia orain mundu ekologiko eta nekazaritza onbideratzailean oinarritzen da; horren gakoa da lurrari kendu zaizkion mineral guztiak berriz ere bueltatzea. Landatze metodo hau Euskal Herrian eta Estatu mailan gutxinaka zabaltzen ari da eta beharrezkoa da gizartearentzat.

Zein balio eranstean dio euskarak Etxeko Baratza proiektuari?

Niretzat euskara guztia da. Ni bizi naitzen lekuan euskaraz egiten da, Euskal Herrian bizi gara eta beharrezko dugu euskara, gure hizkuntza, gure sustraia da... Etxeko baratzari guztia eskaintzen dio, baita eguneroko bizitzari ere, bizi dudana guztiari. Euskaraz egiteko ohitura berreskuratu behar dugu, baita Araban ere.

Nik espero dut hemendik 20 urtera nire haurrek euskaraz egitea, bai nirekin, bai nire bikotekidearekin, baita kalean ere; hori da nahi dudana, euskaraz bizi ahal izatea; euskara gurea da, kendu ezin duguten zerbait.

Euskaraz lan egin eta bizi nahi dutenei, zer esango zenieke?

Euskaraz baldin badakizu, nahiz eta euskaldun berria izan, eman behar duzun lehenengo pausoa da zure familia edo lagunekin euskaraz egitea. Ohitura hartzen baduzu erraza izango da, garrantzitsuena baita euskaraz normaltasunez aritzen saiatzea.

Iraia Aspuru Adigrafik

“Euskarak balioa eransten die gure harreman eta negozioei”

Adigrafik izan zen Lazarraga Sariak ekitaldian izendaturiko lehenengo hautagai irabazlea. Aiara aldetik etorri ziren Iraia Aspuru, Ion Aspuru eta Laura Saratxaga, diseinu grafiko eta web sektorean murgilduta dauden Adigrafik-eko ordezkariak. Harriduraz eta poz handiz jaso zuten euskara sustatzeagatik lorturiko saria. Taldeak euskara hobesten du barnera zein kanpora begirako harremanetan eta euren bezeroak euskaraz aritzera animatzen ditu, balio erantsi gisa. Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, Adigrafik-ek bere zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituela bermatzen da. Saria jaso ondoren, Iraia Aspurrekin izan ginen.

Zer sentitu duzue zuen izena entzun eta Lazarraga Sarietako bost irabazleetako bat zinetela jakin duzue-nean?

Lehenengo eta behin, urduritasuna, baina poza batez ere, poza eta euskararen alde lanean jarraitzeko indarra.

2010ean, Lazarraga sarien lehenengo edizioan, hautagai izan ginen. Aurten ere hautagai proposatu gaituzte eta edizio honetako irabazleak izan gara; harriduraz eta ilusio handiz jaso dugu saria.

Seinale ona da kanpoko norbaitek Adigrafik aurkeztu izana, ezta? Euskararen aldeko lana baloratzen dela adierazten du horrek.

Bai, noski; hala ere, esan bezala, ezin sinetsita gaude eta asko harritu ginen gure izena hautagaien artean ikusi genuenean. Guk ez dugu egiten euskararen aldeko izugarritzko lana, modu natural batean egiten dugu, esfortzu berezirik

egin gabe. Gu gara euskara gehien sustatzen dugunok? Ez genuen espero, gure egunerokoan euskara presente egoteak ez duelako ahalegin berezirik suposatzen.

Zein garrantzia du euskarak zuen egunerokoan, maila profesionalean?

Saria jaso ondoren adierazi nuen bezala, gure lan gehiena publiko zabalari zuzenduta dago eta euskarari arreta berezia eskaintzen diogu. Kartelak egiten ditugu, webguneak, material grafikoa... euskarri guztiak euskaraz garatzen ditugu eta, gainera, ikusten dugunean bezeroen batek ez dituela testuak euskaraz, animatzen diogu euskaratzeko. Beti saiatzen gara laguntza eta baliabideak eskaintzen, jendeak euskarazko edukiak sor ditzan. Bistakoa da bezeroek oso positiboki baloratzen dutela jarrera hau.

Orduan, bezeroek eskertzen al dute zerbitzua euskaraz eskaintzea?

Nik uste dut baietz, euskara balio erantsia da guretzat. Gure eskualdean, adibidez, jaietako egitarau bat egin behar badute, konturatu gabe, zuzenean gaztelaniaz egiten dute. Gurera iritsi eta guk euskarazko edukiak sartzera animatzen ditugunean, ikusten dute euskararen bidez haien edukiak aberasten direla. Kasu guztietan eskertzen dute itzulpena egiteko aukera eskaintzea, eta saiatzen dira euskara txertatzen aurrerantzean sortzen dituzten dokumentuetan.

Nola baloratu zenuke euskararen egoera Arabako arlo sozioekonomikoan?

Esango nuke aurrerapausoak egon direla azken urteotan. Argi dago Araba he-



rrialde konplexua dela, ez dago berezko euskaldun zaharrik eta, zenbait espaziotan, zaila da euskaraz aritzea. Oro har, egunerokotasunean inguruko jendearekin euskaraz aritzea falta da, baina, uste dut, pixkanaka jende gehiago hasi dela lehenengo hitza euskaraz egiten. Gure kasuan, adibidez, bezeroek badakite Adigrafik-en bulegoan telefonoz lehenengo hitza euskaraz entzungo dutela eta, orduan, lehenengo hitza behintzat euskaraz egiten ahalegintzen dira.

Etorkizunera begirako erronkak?

Hori da galdera izarra... eta orain, zer? Gutxi gorabehera, paperean dagoen guztia bete dugu. Gu, enpresa moduan, hizkuntzen berdintasuna mantentzen saiatzen gara, nahiz eta euskara izan gure lehentasuna eta etengabe sustatzeko lan egiten dugun. Enpresaren politika da euskara beti aurretik jartzea.

Igone Martinez de Luna

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

“Ni banax Arabakoa”

Arabako Foru Aldundiak Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartarekin batera alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko lan egiten du, Lanabes - Araban Euskara Lanean bezalako egitasmoen bidez. Azaroaren 24an Lazarraga Sariak banatu ondoren, Foru Aldundiko Igone Martinez de Lunarekin (Euskara, Kultura eta Kirol saileko diputatua) izan gara ekitaldiaren balorazioa eta aurrera begirako erronkak ezagutzeko.

2016ko Lazarraga sariak igarota, zein da Arabako Foru Aldunditik egiten duzuen balorazioa?

Arabako Foru Aldunditik balorazio ona egiten dugu, sari hauek hasiera batetik lurraldean daukagun errealtatea irudikatzen laguntzen digutelako, enprestan euskararen presentzia eta erabilera zertan den sumatzeko bide egokia delako. Sarietan egon zen ordezkartza ikusita, mugimendua badela esan genezake, inoiz baino aberatsagoa eta kopurutsuagoa izan da.

Arabako gizarte euskalduna eta arlo sozioekonomikoa ordezkatzuta ikusi genuen ekitaldian. 50 hautagai baino gehiago, sektore ezberdinetako erakunde eta enpresak, errealtate gero eta euskaldunago baten isla.

Hala da, aurreko urteetan egin den lan isilak bere bidea egin du eta gero eta euskaldunagoa den gizarte hau aipatzen dugunean esparru sozioekonomi-

koan ere antzeman behar da, izan ere, arabarrok lanean ere hainbat ordu ematen ditugu eta horietan euskaraz egiteko aukera eta gogoia badugula ikusten ari gara. Sektore bati bakarrik ez dago hobekuntza hau, orokorragoa dela esango nuke, adin tartearekin lotuagoa agian, 45 urtetik beherakoen artekoak adibidez.

Bilakaera ikusirik, nola irudikatzen duzu etorkizuna?

Etorkizunari begiratzeko hankak lurrean jarri behar ditugu eta atzera begiratura baloratu behar da herri moduan egiten ari garena. Oso baikorra naiz, izatez ere halaxe naizelako, baina uste dut gure lurraldeak baduela besteek ez dutena, ilusioa eta proiektzioa, ikusten ari gara gizartea gero eta elebidunagoa dela, posible dela lan munduan ere euskaraz bizitzea, aukerak badaudela eta, batzuek dioten bezala, sektore hau, lan munduarena, estrategikoa izateaz gain,

beharrezko dugula egunaren heren bat bertan ematen dugu-eta.

Nolako Lazarraga sariak nahiko zenuke 2018rako?

Aurten izan diren antzekoak, hainbat sektoretako enpresa ordezkari ugari bertaratuta, lan munduko lan-talde indartsu baten lidergoaren babespean eta herri erakundeen lankidetzaren ondoan dutela. Aurten poza eta ilusioa sumatu ditut sarietaren ondoren, etorri den jendea harro ikusi dut; eragile, proiektu handi baten partaide eta kide bezala harro. Asko poztu gaitu.

Arabako Foru Aldundia ahalegin berezia egiten ari da euskara arlo guztietara hedatzeko, eta bereziki arlo sozioekonomikora. Lanabes egitasmoaren sorrera lan horren erakusle da?

Bai, dudarik gabe. 2014ko Lazarraga sarietan sortu zen Lanabes egitasmoaren lehenengo ernamuina, hautagai batek

Herri hizkera kontrolatzen duzu?

Sartu eta jarri zure burua proban

Herrizki aplikazioarekin

Gerepetzi



AKTING...

Berezi eda

EUSKAL ZERBITZUA



7 230044 000 000 - 9 242044 700 000
Gurekin hitzatu: 010 40004120000

hizkuntza
aholkularitza

itzulpen
zerbitzua



zerbitzua eta
lana euskaraz



www.artez.eus



proposatu zuenean enpresak elkarren artean harremanak eta elkar ezagutza izatea komenigarria litzatekeela. Gure helburuetan arlo sozioekonomikoan eragitea beharrezko zela bagenekien, baina ez genekien zein bide izan zitekeen onena. Proposamen hau jaso eta mahaiaren bueltan hainbat eragile bildu ondoren, Lanabes egitasmoa martxan jarri eta bere bidea egiten ari da. Hasi-ria baino ez da, eragile gehiago behar ditugu sektore guztietara iristeko, lankidetzaz ezinbestekoa izango da, askotariko lidertza lortu beharko genuke, askoren beharra izango dugulako, egiteko asko dagoelako.

Zeintzuk izango dira Lanabes egitasmoaren datozen urteetako akzio eta estrategia nagusiak?

Lanabes egitasmoak hiru urterako plan bat egin du hiru atal ezberdinetan. Lehenengo atalean. Lanabes ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea izango da, ordezkariarik egokiena identifikatu, aliantza berriak bilatu eta lankidetzak adostu. Bigarren atalean, Arabako sek-

tore sozioekonomikoa euskararen erabilera sentsibilizatzea da lehentasuna. Eta hirugarren atalean saiatu behar gara era guztietako entitateak eta pertsonak inplikatzen, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko. Horretarako sareak landu eta dinamizatu egin behar ditugu, hitzarmenak sinatu enpresa, administrazio eta hezkuntza munduko eragileen artean lan-praktikak euskaraz bideratu ahal izateko. Era berean, lehentasunezkoa da guretzat Administrazioaren lidergoa eta eredu garritasuna lantzea, zehar lerrotasuna.

Arabako Foru Aldunditik nola sustatuko eta bultzatuko duzue Lanabes egitasmoa?

Lanabes egitasmoaren sortzaileak eta partaideak garen neurrian Aldundiaren zerbitzuetan haren berri ematea dago-kigu, gizartean bezalaxe, baina askoren egitekoa da hori, denoi dagokigu sortu berri dugun erramintaren berri ematea. Lehentasunetan ikusi dugun moduan hari mutur asko dauzka esku artean dugun gaiak, arlo sozioekonomikoa eguneroko zeregin ugartan nabaritzen, baliatzen eta bizitzen dugulako. Horregatik, geure etxetik hasita, Aldundiaren egiteko horiek identifikatu eta hobekuntzak proposatzea dagokigu.

Aurrekontuen negoziazioarekin ari zareten honetan, enpresa mundua euskalduntzeari begirako partidak handituko al dituzue?

2017an aurtengo partidari eutsiko zaio, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteari, euskara enpresatan sustatzeko. Lanabes egitasmoaren bitartez.

Aurreikusi al duzue elkarlanean beste egitasmo batzuk martxan jartzea?

Elkarlana hitz gako errekkurentegia izan ohi da, aldiz, ez da txikieria ondo bideratzea... Badakigu, ordea, funtsean zer egin behar dugun: elkar eraginean jarri erakunde, elkarte eta enpresa ordezkariak helburu partekatuetan.

Beste bide batzuk ere badira gure zerbitzuetan, diru laguntza deialdien bidez Euskararen Foru Zerbitzuan. Adibidez,

aspalditik gailtza *Laneki* elkartearekin lanean eta bere proiektua diru laguntza horren bitartez babesten dugu. Merkataritzan eta ostalaritzan ere *Giro Onean* programa martxan da, baina beste bultzada bat eman beharko diogu Arabako ekoizleengana iristeko eta dauzkaten beharretan laguntzen jarraitzeko.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak Enpresarean kudeatzen du eta, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza dauka. Horrelako egitasmoak lagungarriak izan al daitezke Arabarako?

Zergatik ez? Aurretik ikusi egin beharko da Gipuzkoan egokia dena ea Araban ere funtzionatzen duen, zein indar, zenbat enpresa dauden Araban euskaraz lan egiten, zenbatekoa den daukagun euskaldun profesionalen sarea. Uste dut egitasmo ederra izan daitekeela, baina aurrelana egitea ezinbesteko ikusten dut, neurrira egokitzeke.

Arabako Foru Aldundia eredu-garria izan behar da gizartearen eta arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean. Norabide horretan akzio konkretuak aurreikusten dituzue?

Uste dut Arabako Foru Aldundia bere bidea egiten ari dela, batzuen ustez ez da nahikoa izango, baina dauzkagun baliabideekin aurrera goazela esan beharra daukat. Bosgarren plangintzaldia da Aldundiak euskara plana duela onartua, bitartean, etxeko lanak egiten ari gara. Halere, arlo sozio-ekonomikoa da esparru bezala atzeratuena dagoena beste lurraldeetan ere; gurean ere halaxe da.


Baikortasunetik eta itxaropenetik, azken urteotako bilakaera ikusirik, nola irudikatzen duzu etorkizuna?

Itxaropentsu, esan dizut lehenago ere, Ni banax Arabakoa diogu gaurko arabarrak ere, gure haurrak eta gazteak euskaldun datoz, euskaldun ikusten dute bere burua, eta nagusiagoak garenok bidea erraztu behar diegu euskaraz bizi daitezen.

Arabak ez da inoiz moztu haria, mataza egitea dagokigu orain, hasi etxean eta eskolan, segi kalean eta lanean, ni banax Arabakoa.

Lansarean.eus lan-ataria berrituta

2014an martxan jarri genuen www.lansarean.eus lan-ataria berritu dugu, enpresa edota profesional euskaldunak ezagutzeko aukerak errazten jarraitzeko asmoz. Bi urte igaro ondoren eta milaka lan-eskaintza jaso ondoren, diseinu eta funtzionalitate berriak erantsi ditugu enpresa eta hautagaiei beharrei modu eraginkor eta pertsonalizatu batean erantzuteko. Lansarean.eus da euskara hutsez dagoen Euskal Herri osorako lan-atari bakarra.



Enplegu sare honen arrakasta ikusirik, plataforma hobetu eta funtzionalitate eraginkorragoak eskaintzea erabaki zen; alde batetik, enpresek lan-eskaintzak zabaltzeko eta hautaketa-prozesuak arinago kudeatu ditzaten eta, bestetik, hautagaiek lan-eskaintzak modu pertsonalizatuan jaso eta bilaketen araberako emaitza zehatzagoak izateko. Euskaratik eta euskaraz zerbitzuak eta lan aukerak hobetzea da helburua.

Funtzionalitatea ez ezik, webgunearen diseinua ere berritu dugu; bizitasuna, erakargarritasuna eta erabilgarritasuna sustatuz. Lansarean.eus irudia Bai Euskarari Ziertagiriaren Elkartearenarekin uztartu nahi izan da eta horren diseinu irizpideak jarraitu dira orain dela bi urte sorturiko atariaren bigarren etapari hasiera emateko. Aro berri honetan erabiltzailea da protagonista eta emaitza guztiak behar edo nahien arabera jasoko ditu.

Nola ez, atariak *responsive* izaten jarraituko du; horrek esan nahi du pantaila ezberdinetara egokituko dela: mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, sateleko telefonoak... Enpresek zein hautagaiek era erraz eta azkar batean erabil dezaten diseinatuta dago.

Leitzaran Grafika, S.L.
Martin Ugola Kultur Parkia
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943.303510 - fax: 943.593067

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak

- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koademaketa
- Prozesu integrala

Webgune berriak aurrekoak zituen funtzionalitate guztiak mantentzen ditu eta berritasun bezala, hauek nabarmendu daitezke:

- **Lan abisuak:** hautagaiak jakinarazpenak jasotzeko aukera izango du. Lan bila dabilen pertsonak izena eman eta egunero lan eskaintza berriak jasoko ditu bere posta elektronikoan. Hori horrela izanik, modu eroso eta azkar batean, uneoro izango du eskaintzen berri eta lana topatzeko aukerak ere bikoiztuko dira.
- **Lanbide orientazioa:** aurretik ere eman dira lan munduan ibili eta aukera berriak topatzeko aholku eta jarraibideak. Atari berriak atal hori indartu eta alor ezberdinetako orientazio lagungarria eskainiko die hautagaiei: Nola sortu zure curriculum-a, nola prestatu lan-elkarriketa bat? Zer da marka pertsonala eta nola garatu? Ekin nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi? Zeintzuk dira lana bilatzeko aukerarik aproposenak? Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek lan bilaketa prozesua normalean zaila izaten dela ulertzen du eta bide horretan zalantzak, argituz eta aukerak erraztuz, laguntza eskaini nahi die lan bila ari diren pertsonari.
- **Jarraitu hautagaitza:** Eskaintza batean izena ematen dutenek une oro jakin ahal izango dute euren hautagaitza zein egoeretan dagoen (jaso da, onartu da, ez da onartu...), modu erraz eta intuitibo batean.
- **Eskaintzari egokituriko curriculum-ak:** lan-bilaketa prozesu baten lehenengo araua da curriculum bakarrak ez duela balio, eskaintzaren arabera egokitu behar dela. Hori horrela izanik, atari berrian hautagaiak curriculum bat baino gehiago gorde eta bidaltzeko aukera izango du, etengabe eguneratzeko beharrik gabe.
- **Nork ikusi nau?** Hautagaiak, bere curriculum-aren egoeraren jarraipena egitearekin batera, jakin ahal izango du zein enpresak ikusi duen bere profila. Horrela, nahi izatekotan, zuzenean jarri ahal izango da berarekin harremanetan.
- **Lan harremanak:** Lansarean.eus atarian esperientzia, interes, aukera... askok topo egiten dute eta hemendik aurrera parte hartzaileek harremanetan jarri eta proposamenak, ideiak, proiektuak... partekatzeko aukera izango dute.
- **Formazioa:** Erabiltzaileek ikastaroak igotzeko aukera izango dute eta hautagaien izen-emateak formazioaren antolatzaileek kudeatuko dituzte.



Lansarean.eus-ek zerbitzu eraginkor, pertsonalizatu eta azkarra eskaini nahi die euskaraz lan egiten edo lan egin nahi duten profesionali. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko konpromisoa hartu du eta egitasmo ezberdinetan lan egiten du bere erronka lortzeko. Lansarean.eus eta Enpresarean dira ardatz nagusiak, elkarlana, euskara eta aukera profesionalak uztartzen dituzten bi egitasmoak.

LANsarean bilalan

www.lansarean.eus

@lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak harremanetan jartzeko webgunea

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

Zure erakundearen hizkuntza-egoeraren diagnostikoa sei pausotan

Bukatu dira tramite luzeak, itxaron epeak, txosten mardulak eta prozedura aspergarriak... Prest dago enpresen, komertzioen eta era guztietako entitateen hizkuntza-egoera eza-gutzeko baliagarria den auto-diagnostikorako aplikazioa. Sei urratsetan, azkar eta erraz, Bai Euskararik lagunduko dizu zure enpresaren hizkuntza-egoera ezagutzen eta hobetzen. Hiru minutu besterik ez dituzu beharko galdera sinple batzuk erantzuteko eta, amaieran, zure erakundearen euskara maila zein den jakingo duzu. Hori kontutan izanik, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen taldea zurekin harremanetan jarriko da eta, beharren arabera, hobekuntzarako proposamenak, laguntza eta baliabideak eskainiko dizkizu.

Aplikazio honen bidez hizkuntza egoera modu global eta autonomo batean ebaluatzeko aukera eskaini nahi zaie erakundeei. Sei urrats jasotzen ditu galdetegiak eta azken emaitza Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko dauden irizpideetan oinarritzen da. Horretarako, lau atal aztertzen dira: 1) hizkuntza-gaitasuna, 2) irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia 3)

kanpo harremanak, eta 4) barne harremanak.

Askotan entzun izan dugu halako enpresatan euskaraz egiten dutela lan, edo etxe azpiko dendariari maiz entzun izan diogu bezeroak euskaraz hartzen dituela eta zerbitzua euskaraz eskaintzen diela. Zeren arabera esan dezakegu enpresa batek bezeroei zerbitzua euskaraz eskaintzen dien?

Zein irizpideren arabera ondorioztatu dezakegu gure enpresatan lana euskaraz egiten dugun? Enpresa, saltoki edo beste edozein entitatetan lana euskaraz burutzeko, zenbat pertsonak izan behar dute gaitasuna euskaraz aritzeko? Eta bezeroak euskaraz hartzeko? Eta zuzendaritza edo-eta ordezkaritza lanetan ari direnek ere, bete behar al dute irizpideren bat?



KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

elkar



**ERAKUNDEAREN
A EGOERA**

6 PAUSOTAN

AKAR ETA ERRAZ

**BETE ZURE
DIAGNOSTIKOA**

enpresarean

LANsarean

enpresarean.eus

lanarean.eus

f /enpresarean

f /lanarean

@enpresarean

@lanarean

Eta irudi korporatiboari eta hizkuntza paisaiari gagozkielarik, euskaraz al daude gure enpresa, saltoki eta erakundeetako kartelak, errotuluak, katalogoak, etab.?

Eta, kanpora begira, gure bezeroei euskaraz eskaintzen al dizkiegu euskarriak? Esate baterako: fakturak, gutunak, poltsak... Eta, zein hizkuntzatan izaten da telefono bidezko edo

aurrez-aurreko harremana? Publizitatea eta promozioak egiteko erabiltzen diren elementuak euskaraz al daude? Eta webgunea eta sare sozialak?

Erakundearen barnean ere, hizkuntza nola txertatu eta erabiltzen den baloratuko da. Zein hizkuntzatan daude nominak, barne araudia edo harreara plana bezalako ohiko elementuak? Euskaraz izaten al da administrazioe-kiko harremana? Zein hizkuntza dabilte gure enpresatako funtzionamenduan eragiten duten hornitzaileek? Programa informatikoak euskaraz konfiguratuta al daude?

Atal guztiak aztertu ondoren, zure erakundearen egoera ezagutu ahal izango duzu zuzenean, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak erabiltzen duen mailaketa sistemaren arabera.

Interesa duen edonork bete dezake www.baieuskarari.eus atarian dagoen hizkuntzaren auto-diagnostikoa. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak bakoitzaren egoera aztertu eta gero, hobekien egokituko den hobekuntzarako aukera eskainiko du eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko aukera emango dio enpresari.

Euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berritzea, saltzea eta erostea, gure enpresatako egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posiblea bada, gu guztion ongizatea handiagoa izango da... Horra hor gure erronka.

Betezure auto-diagnostikoasei pausotan. Azkar eta erraz.

bai euskarari

Ziurtagiriaren Elkarteak

Lan eta bizi euskaraz

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

**ZUK ZEUK,
AZKAR ETA
ERRAZ**

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA



www.enpresarean.eus

f /enpresarean

@enpresarean



**Enpresa eta profesional sarea,
euskaraz**

- Enpresa munduko alisteak
- Elkarianerako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa



Ziurtagiriaren
Elkarteak

Lan eta bizi euskaraz

Zarautz eta Gernikako enpresa, komertzio eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzen jarraituko dute

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak, Zarautz eta Gernika-Lumoko Udalekin batera, euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du



Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Zarauzko Udalararekin eta Gernika-Lumokoarekin bildu zen orain arte egindako lana aitortzeko eta aurrera begira lanean jarraitzeko hitzarmenak sinatzeko. Bi kasuetan, nabarmendu da Bai Euskarari komunitatea osatzen duten Euskal Herriko milaka entitatek urte hauetan egindako lana; horrekin batera, erronka zein den azpimarratu nahi izan zuen Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak: “Helburua da alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea, lan mundutik hasi eta gizartearen gainerako espazioen euskalduntzean eragitea. Egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posible bada, gure ongizatea handiagoa izango baita”.

Zarautzen 32 ziurtagiridunen babesa

Zarauzko Udalak Bai Euskarari hitzarmena berritu zuen abenduaren 2an, Udaleko Pleno Artetoan. Hitzarmena 2005ean sinatu zen lehenengo aldiz eta, orduztik, asko dira Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu eta hobekuntzak antzeman dituztenak; egun, Zarautzen 32 establezimenduk dute euskararen ziurtagiria: hiruk “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” maila, hogeik “Zerbitzua Euskaraz” maila eta bederatzik “Euskararen Bidean” maila.

Hitzarmenaren bidez, establezimendu horiek hizkuntzaren jarraipen eta ebaluazioa jasoko dituzte; Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak kasu bakoitzaren egoera aztertu eta baliabideak eskaintzen ditu bidea errazagoa izan dadin.

Bezeroak euskaraz hartzeak eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeak duen garrantzia argi duten entitateak dira hitzarmenaren sinadura ekitaldian izan direnak. Hain zuzen ere, ongi dakite hizkuntzak herritarrengana gerturatzeko duela eta horrek bezeroei konfiantza ematen diela. Euskararen erabiltzen duten merkatariek irudi hobea ez ezik, sinesgarritasun handiagoa ere badute bezeroen artean.

Gernika-Lumo

Abenduaren 2an ere, iluntzeko zortzietan Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zen Gernika-Lumon. Bertako denda, enpresa, elkarte eta erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria jaso zuten Astran, Ziurtagiriaren Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak sustatutako elkarlanaren ondorioz.

Bertan izan ziren, agiriak emateko, Olatz Larrinaga, Ziurtagiriaren elkartearen izenean, eta Marisa Aldamitzetxeberria, Euskara Zinegotzia. 27 ziurtagiri banatu ziren; horietako zortzi merkataria dira, 14 enpresa txiki eta ertainak eta bost elkarteak.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen esanetan, “ziurtagiridunak eredu garriak dira eta euskaraz bizi daitekeela erakusten dute”.



Gasteizko ikasleak elkartu ziren #GasteizenBaiEuskarari mintzo-txiodromoan

Azaroaren 30ean, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean, mintzo-txiodromoa egin zen Gasteizko Egibide, Presentacion de Maria, Karmeldarrak, Gamarrako Ostalaritzako eskola eta Marianistetako Lanbide Heziketa eta Batxilergoko ikasleekin.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek, Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarlanean, Euskararen Astean antolatzen duen egitasmoan irribarreak, ezustekoak eta gogoetak izan ziren nagusi. Gazteek gai ezberdinei buruz hitz egin zuten eta gogo handia erakutsi zuten euskara euren egunerokotasunean txertatzeko.

Olatz Larrinaga

Elkarteko teknikaria



Mintzo-Txiodromoa zein asmorekin?

Euskararen egunaren harira antolatzen dugun ekintza da. Gazteen artean euskara sustatzeko eta ikustarazteko eskolaz kanpo ere euskaraz bizi, jolastu, lan egin, kontsumitu... ahal dela.

Zein da gasteiztarren egoera euskararekiko?

Oso argi daukate euskara presente dagoela, baina, adin tarteagatik, ez dute beharrezko ikusten lan egiteko; ez dute normalizatuta euskara egunerokotasunean.

Erronkak?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen argi dugu arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzeko eta lortzeko lan egingo dugula. Gazteak hezkuntza mundutik lan eremura pasatzen direnean, euskarak presentia egon behar du eta hori kudeatu beharra dago. Guk, prozesu honetan, tresnak, baliabideak eta laguntza ere eskainiko ditugu.

Zer esango zenieke parte hartu duten gazte horiei?

Euskara sustatzen jarraitzeko, euskara erabiltzen segitzeko, euskara egunerok erabiltzeko, espazio guztietan, formaletan eta informaletan. Euskararen egunean ez ezik, gainerakoetan ere.



Arkaitz Illarramendi

Elkarteko teknikaria



Mintzo-Txiodromoa zein asmorekin?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek ekitaldi hau antolatzen du gazteek euren egunerokoa euskararekin duten harremana sakontzeko.

Zein izan da parte hartzaileen profila?

Parte hartzaileak Lanbide Heziketa eta Batxilergoko Gasteiz eta inguruko bost ikastetxetako ikasleak izan dira. Bi profileko gazteak berezituko nituzke, alde batetik, euskara egunerokotasunean dutenak eta, beste batetik, euskara ikaste-txearekin bakarrik lotzen duten ikasleak.

Zer landu dute?

Lehenik eta behin euskara egunerokoa nola bizi duten azaldu dute; gero, landu dute kontsumitzeko orduan euskara aintzat hartzen duten; eta, azkenik, ikasketak eta lan mundua; kontuan izan behar dugu ikasketak euskaraz eginda ere, tamalez, lan mundua oso erdalduna dela eta, ondorioz, jauzi horretan eten bat ematen dela. Eremu horretan ari da lanean Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea.

Opariak ere banatu dituzue, ezta?

Zozketa batzuk egin ditugu denak zapore onarekin etxera bueltatzeko, tartean, Alaves edo Baskonia ikusteko sarrera batzuk banatu ditugu, bai eta Zea Mays taldearen kontzerturako ere. Izaki Gardenak eta Montauk taldeen diskoak ere zozkatu ditugu. Gustura egon gara; goiza pasa dugu euskararen harira eta, gainera, opari batzuk eraman ditugu; zer gehiago behar dugu?

Zer esango zenieke parte hartu duten gazteei?

Jabetu behar direla Gasteizen badituztela euskaraz aritzeko aukerak eta aholkatuko nieke aukera horiek baliatzeko. Ulertarazi ere, euskara ez dela bakarrik eskolarekin loturiko hizkuntza, askorentzat den bezala, eta gaztelaniaz egin daitekeen guztia euskaraz egin daitekeela.

Urte berriari, *bai euskarari*

2016 urteari agur esateko unea iritsi zaigu. Abenduan murgildu gara konturatu gabe eta ez da ezer falta urte berriari ongi etorria emateko. Iraganean egindako ibilbidea zein den ikusi eta baikortasunez begiratzen diogu datorrenari. 2017 indarrez hasiko dugu, euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko ideia, proposamen eta egitasmo gehiagorekin. Urte berri honetan eta datozenetan ere euskaraz lan egin eta bizi nahi dugulako.

Zalantzarik eta konplexu izpirik gabe, harro egoteko moduko ibilbidea da Bai Euskararirena, eta pozik egoteko modukoa da Bai Euskarari komunitatea osatzen duten Euskal Herri osoko milaka entitatek urte hauetan eragin dutena. Ez dezagun ahanzi horixe dela gure helburua, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea, lan mundutik hasi eta gizartearen gainerako espazioen euskalduntzean eragitea. Urte hauetako lan eredugarri eta haien borondatezko konpromisorik gabe, nekez egongo ginateke oraingo egoerari. Eragin dugu. Eragiten ari gara eta eragiten segituko dugu.

Asko dira orain arte abian jarritako egitasmoak eta burururiko proiektuak. Era berean, ez dira edonolakoak lorturiko emaitzak ere. Bistakoak dira euskararen normalizaziorako bidean emandako aurrerapausoak; gero eta pertsona, entitate, enpresa edota komertzio gehiago ohartzen ari dira euskara arlo profesionalean txertatzearen balioaz eta hizkuntza sustatzeko ahalegina egiten ari dira.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea saiatzen da euskalduntze prozesu horretarako baliabideak eta erraztasunak eskaintzen, bidelagun eta orientatzaile izaten. Urtea amaituta, 1.268 ziurtagiridun zenbatu ditugu, alor eta leku ezberdinetako euskararen aldeko mila BAI baino gehiago. Kopuru horrek pozten gaitu, baina ez gara konformatzen; bidea egiten jarraituko dugu, arlo ekonomikoaren euskalduntzeko konpromisoa hartuz eta entitate berriei eskua luzatuz. Lehenengo sektoreko aktoreei, hezkuntza zentroeiei, ostalaritzako agenteei, komertzioei, komunikabideei, administrazioei...

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearengan konfiantza jarri dute euskararen erabilera sustatzeko eta emaitzak ikusten ari dira pixkanaka. Kasu bakoitza ezberdina delako, beharrak eta nahiak alor eta testuinguruaren arabera aldatzen direlako, Bai Euskararik egoera bakoitza bakar bezala aztertu eta tratatzen du.

Aurretik esan bezala, atzokoak pozez gogoratzen ditugu eta biharkoak ilusioz hartuko ditugu. Egin dezagun 2016 urteak utzitako egitasmo eta ekintzen errepaso bat eta har ditzagun indarrak urte berria atzean utzitakoa bezain emankorra izan dadin.

Bai Euskarari!

Bai Euskarari ziurtagiria duten enpresa guztien segimendua eta ebaluazioak garatu ditugu eta urte berri honetan ere horien bidelagun izaten jarraituko dugu. Helburua da horietan eta inguruan euskararen erabilera eta presentzia sustatzea eta handitzea, eta horretarako, Bai Euskarari elkartetik erraztasunak eman eta emango ditugu: hitzarmenen bitartez, eta bestelako tresna eta baliabideak haien esku jarritz.



Autodiagnostikoa 6 pausotan

Hizkuntzaren ebaluazio eta hobekuntzarako tresna azkar eta erraza aurkeztu dugu azken hilabeteen, erakundeen hizkuntza-egoeraren diagnostika egiteko aplikazioa. Edozeinek bete dezake www.baieuskarari.eus atarian dagoen sei urratseko galdetegi sinplea, erakundearen euskara maila zein den jakin eta hobekuntza prozesu bat hasteko. Sistema honen bidez tramite, dokumentazio, epe luze eta abarrei agur esan eta hiru minutura laburtu ahal izango dute hizkuntza-egoera aztertzeko prozedura. Sei pausotan. Azkar eta erraz.



Enpresarean Azoka

Azaroaren 3an, Enpresarean Azokaren hirugarren edizioa burutu genuen Orona Ideoren egoitzan, arrakasta handiz. 130 pertsona inguruk parte hartu zuten jardunaldian euren ilusio, ibilbide profesionala eta ekintzailatza zein finantzazio ereduak partekatzeko. Ekitaldiak izugarritzko oihartzuna izan du eta aurrerapauso handia izan da arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera naturala sustatzeko. Bertan izan ziren goi mailako profesionalak, solasaldietan bilduta eta euren bizipenetan oinarrituriko hitzaldiak eskaini zituzten: Adeg, Bac Mondragon, Crecer+Orkestra, Talaio, Laboral Kutxa, Fiare, Elkargi edo SPRIko ordezkariak, besteak beste. Nabarmentzekoak izan ziren, era berean, Eneko Knörr-en, Markel Olanoren (Gipuzkoako diputatu nagusia) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekonomia sustapeneko zuzendaria den Antton Tomasenaren interbentzioak.

Emozioz beteriko eguna izan zen azaroaren 3a; izan ere, Kaixomaitiako, euskaldunon harremanetarako guneko, Iñigo Arandiak irabazi zuen Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainitako 2.000 euroko saria eta irabazleak Banaiz Bagara elkartearekin partekatu nahi izan zuen saria.



Lanabes – Araban Euskara Lanean

Nabarmentzeko modukoa da “Lanabes – Araban Euskara Lanean” proiektuaren bitartez Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko lortutako emaitza, partaideon inplikazioak, elkarrekin lan egiteak eta elkarrekiko aitortzak eta onarpenak arrakastarako duten garrantziaren adierazle. Gainera, Lazarraga Sariak banatu ditugu Gasteizen, Arabako Foru Aldundiarekin batera, Arabako arlo sozioekonomikoan euskararen sustapenean lan egin duten entitate edota pertsonak saritu eta haien ahalegina aitortzeko.



Bai Euskarari Sariak 2016

Aitortzaz ari garela, Lanekik, Zugarramurdiko Sorginen Museoa eta Lezeak eta Mondragon taldeko Mikel Lezamizek jaso zituzten aurtengo Bai Euskarari Sariak. Ibilbide arrakastatsu eta ereduagarria dute saridunek. Haien ereduari esker eta haien esperientzia baliatuta, aurrera egingo dugu gure komunitatearen ongizatean eraginez.



Lansarean.eus atari eraberrituta

2014an martxan jarri genuen www.lansarean.eus lan-ataria berritu dugu, enpresa edota profesional euskaldunak ezagutzeko aukerak errazten jarraitzeko asmoz. Bi urte igaro ondoren, eta milaka lan-eskaintza jaso ondoren, diseinu eta funtzionalitate berriak erantsi ditugu enpresa eta hautagaien beharrak modu eraginkor eta pertsonalizatu batean erantzuteko.



#BaiPraktikaEgokia

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko dauden irizpideei jarraiki, euskararen erabilerrari dagokionez egoki aritu nahi duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek egin beharreko bidea jaso dugu eta horren berri zabaltzeko posterrak prestatu ditugu (EUS; EUS-ES; EUS-FR; EUS-ES-FR). Baieuskarari.eus webbean daude deskargatzeko, inprimatu eta lan-lekuan hedatzeko moduan.



#Hitzargiak

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren barruan, “Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak” izeneko egitasmoaren topaketetan Bai Euskarari Ziurtagiria, Enpresarean eta Lanabes proiektuak aurkeztu genituen, Europako adituen aurrean, jardunbide ereduagarri gisa, bai gure komunitatearentzat, baita beste hizkuntza- edota hiztun- komunitate hainbarentzat ere. Esperientziak partekatzeak, elkarren ezagutza baliatzeak, besteengandik ikasteak, elkar elikatzeak eta laguntzeak proiektuen arrakasta indartzen dute, eraginkortasuna areagotuz.



2017 urteari indarrez ekin nahi diogu

zuekin batera, euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko ideia, proposamen eta proiektu gehiagorekin. Euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugulako.

**Urte berriari
#baieuskarari**

bai
euskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz



enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



/lansarean



@lansarean